


Euskal Autonomia Erkidegoko industria-prezioek % 1,7 egin dute gora 2023ko otsailean, aurreko hilabetearen aldean

2022ko otsailaren aldean, industria-prezioen igoera % 8,4koa izan da

Euskal Autonomia Erkidegoko industria-prezioek % 1,7 egin dute gora 2023ko otsailean, aurreko hilaren aldean, Eustatek dituen datuen arabera. Otsaileko urte arteko tasa –azken hamabi hiletako industria-prezioen aldakuntza jasotzen du– % 8,4koa da.

Analisi zehatzago batek erakusten du 2023ko otsailean hazkuntza nabarmenenak izan dituzten sektoreak honako hauek izan direla: *Energia elektrikoa, gasa eta lurruna* (% 12,5), *Kautxua, plastikoa eta beste produktu mineral ez-metalezko batzuk* (% 3,0), *Elikaduraren, edarien eta tabakoaren industria* (% 2,7) eta *Erauzketa-industriak* (% 2,4). Prezioetan hil arteko beherakadak izan dituzte, berriz, honako sektore hauek: *Kokeriak eta petrolio-fintzea* (% 5,4) eta *Zuraren, paperaren eta arte grafikoaren industria* (% 1,2).

Euskal AEko industria-prezioen indizearen urte-arteko aldakuntza-tasa. (%)



Iturria: Eustat. Industria-prezioen indizea

Helmuga ekonomikoaren arabera ondaren sailkapenari jarraikiz, *Ekipo-ondasunen* prezioen aldakuntza, 2023ko urtarilarekin alderatuta, % 0,6koa izan da, *Tarteko ondasunena* % 0,4koa eta *Kontsumo-ondasunek* % 2,3 egin dute gora; azken horietan, igoera egon da *Kontsumo ez-iraunkorreko ondasunetan* % 2,6ko igoera egon delako, eta % 0,5ekoa *Kontsumo iraunkorreko ondasunetan*. *Energiaren* prezioek, azkenik, % 3,8 egin dute gora aurreko hilarekin alderatuta.

Urte arteko terminoetan, 2023ko otsailean, 2022ko otsailaren aldean, prezioen hazkuntza handienak honako adar hauetan izan dira: *Zuraren, paperaren eta arte grafikoaren industria* (% 18,6), *Erauzketa-industriak* (% 18,3), *Elikaduraren, edarien eta tabakoaren industria* (% 16,3), *Ehungintza, jantzigintza, larrugintza eta zapatagintza* (% 14,9) eta *Kautxua, plastikoa eta beste produktu mineral ez-metalezko batzuk* (% 14,1).

Euskal AEko Industria prezioen indizea. Aldakuntza-tasak (p). Otsaila 2023

	INDIZEA	ALDEAREN %	
		m / m-1	m / m-12
INDIZE OROKORRA	134,1	1,7	8,4
SEKTORE-BANAKETA			
Ateratze-industriak	126,8	2,4	18,3
Manufaktura-industria	130,5	-0,2	8,6
Elikaduraren, edarien eta tabakoaren industria	133,4	2,7	16,3
Ehungintza, jantzigintza, larrugintza eta zapatagintza	117,8	1,0	14,9
Zurgintza, papera eta arte grafikoak	148,2	-1,2	18,6
Kokeak eta petrolioaren finitzen	147,0	-5,4	4,4
Industria kimikoa	152,5	0,1	11,8
Botiken fabrikazioa	126,9	0,0	7,5
Kautxu eta plastikoa, beste produktu mineral ez-metalezkoak	121,4	3,0	14,1
Metalurgia eta produktu metalikoak	140,5	0,2	9,7
Informatikako, elektronikako eta optikako produktuen fabrikazioa	123,5	1,0	5,3
Material eta ekipoen fabrikazioa	115,5	0,0	3,2
Beste inon sailkatu gabeko makineriaren eta ekipoen fabrikazioa	114,4	0,3	4,3
Garraiorako materialen fabrikazioa	108,4	0,5	2,7
Altzariak, beste manufaktura-ind., konponketa eta instalazioa	119,0	0,3	6,2
Energia elektrikoa, gasa eta lurruna	155,8	12,5	7,1
Ura	131,2	0,6	9,4
INDUSTRIA-SEKTORE HANDIEN ARABERA			
Kontsumo-ondasunak	130,8	2,3	14,6
Kontsumoondasun iraunkorrak	115,8	0,5	6,6
Kontsumoondasun ez-iraunkorrak	133,3	2,6	15,9
Ekipo-ondasunak	115,8	0,6	3,7
Bitarteko ondasunak	135,8	0,4	11,5
Energia	155,7	3,8	7,5

Oinarria 2015=100

(p)Behinbehineko datuak

m / m-1: Azken hileko (m) aldakuntza-tasa, aurreko hilaren (m-1) aldean

m/m12: Azken hileko (m) aldakuntza-tasa, aurreko urteko hil beraren (m-12) aldean

Data 2023ko Martxoaren 23a

Iturria: Eustat. Industria Prezioen Indizea

Prezioen urte arteko aldakuntza positiboa izan da helmuga ekonomikoaren araberako ondasun-talde handi guztietan. *Kontsumo-ondasunen* prezioek % 14,6 egin dute gora, *Kontsumo ez-iraunkorreko ondasunen* prezioak % 15,9 igo direlako eta *Kontsumo iraunkorreko ondasunenak*, % 6,6. *Tarteko ondasunen* prezioek % 11,5 egin dute gora eta *Energiaren* prezioek, % 7,5. Azkenik, *Ekipo-ondasunek* prezioetan urte artean % 3,7 egin dute gora.

INFORMAZIO-OHARRA

Eustat-ek eskerrak eman nahi dizkie elkarlanean jardun duten establezimendu guztiei, egin duten ahaleginagatik. Haiei esker, hil honetako indizea lagingaren % **92,13**ko estaldurarekin kalkulatu da.

Argibide gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastian kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa Zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel.: 945 01 75 62